



**AGINDUA, EAEKO TURISMO-SEKTOREARI SOSTENGUA EMATEKO 2021EKO
LAGUNTZA-PROGRAMA.
MAIZ EGITEN DIREN GALDERAK.**

1.- Nork eskuratu ahal izango ditu?

Beren konturako langileek edo langile autonomoek, ondasun-erkidegoek, sozietate zibilek, nortasun juridikorik gabeko unitate ekonomiko edo ondare banandu bat osatzen duten pertsona fisiko edo juridikoen elkarteek, eta artikuluko honetako 3. zenbakian zerrendatutako jardueren artean dauden EAEko turismo-sektoreko mikroenpresek eta enpresa txiki eta ertainek, betiere Euskal Autonomia Erkidegoan badago haien egoitza fiskala eta soziala, bai eta lantokia ere, eta haren jarduerak inpakturik pairatu badu COVID-19k eragindako krisi sanitarioa kudeatzeko alarma-egoera deklaratu izanaren ondotik hartutako neurriak direla eta.

Zehazki, laguntza honako hauei zuzenduta dago:

- a) **Turismo-ostatuak establezimenduak.** Ostalaritza-establezimenduak, apartamentu turistikoak, kanpalekuak, nekazaritza-turismoa, landetxeak eta aterpetxeak.

Gainera, establezimendu horiek:

- 1 2021eko urtarrilaren 15a baino lehen egon beharko dute inskribatuta Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan.
- 2 Eta euren jarduera Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalako «I» sekzioan bildutakoa izango da.
 - • 551 EJSN TALDEA: Hotelak eta antzeko ostatuak.
 - • 5510 EJSN MOTA: Hotelak eta antzeko ostatuak.
 - • 552 EJSN TALDEA: Turismo-ostatuak eta egonaldi laburrerako beste ostatu batzuk.
 - • 5520 EJSN MOTA: Turismo-ostatuak eta egonaldi laburrerako beste ostatu batzuk.
 - • 553 EJSN TALDEA: Kanpinak eta karabanentzako aparkalekuak.
 - • 5530 EJSN MOTA: Kanpinak eta karabanentzako aparkalekuak.
 - • 5590 EJSN MOTA: Beste ostatu batzuk.

- b) **Erabilera turistikoko etxebizitzaren eta logelen titular juridikoen kasuan:**

- 1 Enpresa horiek alta emanda egon beharko dute jarduera ekonomiko gisa, EJSNko talde eta mota honetan:
 - 552 EJSN TALDEA: Turismo-ostatuak eta egonaldi laburrerako beste ostatu batzuk.
 - 5520 EJSN MOTA: Turismo-ostatuak eta egonaldi laburrerako beste ostatu batzuk.
- 2 Eta besteren konturako langile-taldea dutenak. Horretarako, legez

eratuta eta Gizarte Segurantzaren sisteman inskribatuta egon beharko dute.

- 3 Eta 2021eko urtarrilaren 15a baino lehen egon beharko dute inskribatuta Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan.

- c) **Bitartekaritzako turismo-enpresak:** bidaia-agentziak; enpresa elkartuen turismo-eskaintzen merkaturatze komuna egitea helburu duten turismo-enpresen elkarteak; erreserben zentralak, bitartekari turistikoak eta bidaia-agentzia handizkariak.

Gainera, enpresa horiek:

- 1 2021eko urtarrilaren 15a baino lehen egon beharko dute inskribatuta Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan.
 - 2 Eta euren jarduera Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionaleko (EJSN) «N» sekzioan bildutakoa izango da:
 - EJSN TALDEA 791: Bidaia-agentzien eta bidaia-agentzia handizkarien jarduerak.
 - EJSN MOTA 7911: Bidaia-agentzien jarduerak.
 - EJSN MOTA 7912: Bidaia-agentzia handizkarien jarduerak.
 - EJSN TALDEA 799: Beste erreserba-zerbitzu batzuk eta haiekin loturiko jarduerak.
 - EJSN MOTA 7990: Beste erreserba-zerbitzu batzuk eta haiekin loturiko jarduerak.
- d) **Garraio turistikoko enpresak.** Pertsonak lekualdatzeko azpiegitura eta ekipamendu-ondasunak edukita, nagusiki ibilbide turistikoak egiten dituzten enpresak Euskadi barruan interesekoak diren baliabide edota tokietan. Garraio turistikoko jarduera nagusitzat hartuko da erregulartasunez eskaintzen dena eta enpresa-jardueran negozio-bolumen handiena sortzen duena.
- e) **Turismo aktiboko enpresak.** Lehia-asmorik gabeko aisia-, kirol- eta abentura-jarduera turistikoak prezio baten truke modu jarraituan eta profesionalean eskaintzen dituztenak. Jarduerok egiteko, egiten diren lekuan bertan (airean, lur gainean edo uretan) naturak eskaintzen dituen baliabideak bakarrik erabiltzen dituzte, jarduerotan beti izaten da arriskua, eta beharrezkoa da neurri batean trebatuta egotea. Kanpoan geratzen dira kirol-federazioak, -klubak eta -elkarteak, nahiz eta halako jarduerak gauzatu.

Laguntza eskatu nahi duten turismo aktiboko enpresek bi aukera izango dituzte: dela establezimendu edo lantoki zehatzei buruzko eskaerak egitea, laguntza-programa arautzen duen Aginduan jasotako arau orokorrekin bat etorritik; dela zerbitzu horiek eskaini ohi dituzten puntu zehatzari buruzko eskaerak egitea. Puntu horiek Euskal Autonomia Erkidegoan egon beharko dute.

- f) **Biltzarrak antolatzen dituzten enpresa profesionalak.** Biltzarrak, azokak,

konbentzioak eta antzeko ekitaldiak egiteko aholkularitza-, plangintza-, antolaketa-, zuzendaritza- eta kontrol-zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresa espezializatuak, edo dena delako kongresuak profesionalki eskatzen duen zernahi beste jardueratan aritzen direnak; izan litezke zuzenean eginak edo hirugarren pertsoneri edo elkarteei azpikontratatuak.

Zehazki, erregulazio honen xede dira Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionaleko «N» sekzioan bildutako jarduerak:

- EJSN TALDEA 823: Batzarren eta erakustazoken antolaketa.
- EJSN MOTA 8230: Batzarren eta erakustazoken antolaketa.

g) **Turismo-gidak.** Jarduera eta zerbitzu turistikoen erabiltzaileentzat informazio- eta interpretazio-lana egiten duten pertsonak, Euskadiko interes kultureko ondasun eta gainerako baliabide turistikoen ondare historiko, natural eta gastronomikoarekin loturik. Zerbitzu horiek ohikotasunez, profesionaltasunez eta prezio bidez ematen dituzte, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan eta atzerriko beste edozein hizkuntzatan. Definizio horretan pertsona juridikoak ere sartzen dira.

Jarduera honako talde edo motaren batean bildutakoa izango da:

- EJSN TALDEA 791: Bidaia-agentzien eta bidaia-agentzia handizkarien jarduerak.
- EJSN MOTA 7912: Bidaia-agentzia handizkarien jarduerak.
- EJSN TALDEA 799: Beste erreserba-zerbitzu batzuk eta haiekin loturiko jarduerak.
- EJSN MOTA 7990: Beste erreserba-zerbitzu batzuk eta haiekin loturiko jarduerak.

Horrezaz gainera, pertsona fisikoek ekonomia-jardueren gaineko zergaren (EJZ) epigrafe hauetan sartuta egon beharko dute.

- ATALA: 2
- DIBISIOA: 8
- ELKARTEA: 88
- TALDEAK:
 - 882 Turismo-gidak
 - 883 Turismoko interprete-gidak

2.- Zein da laguntzaren zenbateko osoa?

17.700.000 euro. Agindu arautzaileak ez dio atea ixten zuzkidura ekonomikoa handitzeari, beharrezkoa izanez gero. Gehikuntza hori gertatuz gero, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

3.- Nork ezin ditu eskatu?

- Kanpoan geratuko dira sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko erakundeak, baita eta partaidetzako bestelako erakundeak ere, baldin eta administrazio publikoek edo haien mendeko erakundeek badute gehiengo partaidetza haien kapitalean edo gobernu-organoetan.

4.- Zer eskakizun bete behar ditut?

- a) 2021eko urtarrilaren 15ean egoitza soziala eta fiskala Euskal Autonomia Erkidegoan izatea, eta bertan kokatuta egotea lantokia edo, hala badagokio, egindako jarduera.
- b) 2021eko urtarrilaren 15ean 1. galderan zerrendatutako jardueraren batean aritzea (ikus, halaber, laguntzaren eranskina, non zerrendatzen baitira turismo aktiboaren jardueran sartutako jarduerak), eta jarduera horrek COVID-19ak eragindako krisi sanitarioa kudeatzeko hartutako neurrien ondorioak pairatu izatea.
- c) Norberaren konturako langileen edo autonomoen kasuan, Langile Autonomoen Araubide Berezian alta emanda egotea, 2021eko urtarrilaren 15a baino lehen.
- d) Jarduera ekonomikoaren gaineko zergan alta emanda egotea 2021eko urtarrilaren 15a baino lehen.
- e) Hirugarrenen Erregistroan alta emanda egotea (dirulaguntza ebatzi eta kobratu aurretik)
- f) Egunean izatea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak (dirulaguntza ebatzi eta kobratu aurretik)
- g) Egunean izatea dirulaguntzak itzultzeko betebeharren ordainketa.
- h) Ez izatea dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dien zehapen penalik edo administrazio-zehapenik, eta ez egotea horretarako ezgaitzen dituen debeku baten pean (sexuagatiko bereizkeriagatik sortutakoak barne).
- i) Ez egotea Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren (azaroaren 17ko 38/2003) 13. artikulua 2. eta 3. zenbakietan aurreikusitako gainerako egoeren eraginpean, dirulaguntzen onuradun izateko eskakizunei dagokienez.

Aurreko zenbakiko a) eta b) letretan jasotako betekizunak nahitaez gorde beharko dira, gutxienez, laguntza eskatzeko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrerako lau hilabeteetan. Era berean, erakunde edo pertsona onuradunak EJZn alta emanda egon beharko du, gutxienez aldi horretan.

5.- Itzuli beharreko laguntza al da?

Ez. Itzuli beharrik gabeko dirulaguntza da. Zuzeneko laguntza da.

6.- Zein da laguntzen zenbatekoa?

Zenbatekoa bat etorriko da establezimenduko edo lantokiko langile kopuruarekin, baremo honen arabera:

- 1 eta 3 langile bitarteko establezimenduak: 6.000 euro.
- 4 eta 9 langile bitarteko establezimenduak: 9.000 euro.
- 10 eta 49 langile bitarte dituzten establezimenduak: 12.000 euro.
- 49 langiletik gorako establezimenduak: 15.000 euro.

Bitartekaritzako turismo-enpresentzat:

- 1 eta 3 langile bitarteko establezimenduak: 10.000 euro.
- 4 eta 9 langile bitarteko establezimenduak: 12.000 euro.
- 10 eta 49 langile bitarte dituzten establezimenduak: 15.000 euro.
- 49 langiletik gorako establezimenduak: 20.000 euro.

Kasu guztietan ere, langile guztien zenbaketan autonomoak ez ezik soldatapekoak ere

sartuko dira, kontuan hartu gabe lanaldi osoa edo partziala duten, jardunean dauden, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteetan dauden, lan-harremana etenda daukaten edo jarduera utzita dauden. Langile berak lantoki bakarrean egon ahalko du atxikita.

7.- Denak autonomoak bagara, laguntza hori ere badagokit?

Bai. Langile guztien zenbaketan, autonomoak eta soldatapekoak sartuko dira.

8.- Establezimendu bat baino gehiago badaukat, eska al dezaket laguntza bat establezimendu bakoitzeko?

Bai. Enpresa batek establezimendu bat baino gehiago baditu, horietako bakoitzerako eska dezake. Kasu honetatik kanpo geratzen dira bitartekaritzako turismo-enpresak, eskaera bakarra egingo baitute, eta kalkulua enpresako langile guztien arabera egiten da, enpresa osatzen duten Euskadiko bulego, salmenta-puntu eta/edo sukurtsal guztiak kontuan hartuta.

9.- Zein da laguntza eskatzeko epea?

Epea 15 egun baliiodunekoa da. Otsailaren 3ko 9: 00etatik otsailaren 24ko 08: 59,99ra.

10.- Nola eta non aurkeztuko ditut?

Laguntza eskabideak bitarteko elektronikoen bidez baino ez dira egingo, bide telematika erabiliz; Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoen bidez: <http://www.euskadi.eus/servicios/111060>

11.- Eskabidea betetzeaz gain, beste dokumentu batzuk aurkeztu behar al ditut? Zeintzuk dira?

Kontuan hartu behar da eskabidea oso-osorik bete beharko dela.

Zehazki, **eskabidearekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:**

- **Hirugarrenaren alta edo, beharrezkoa bada, datu-aldaketa** (Ikus inprimakiko "Hirugarrenaren alta edo datu-aldaketa" atala)
- **"Kotizazio-kontuaren kode baten lan-bizitzari buruzko txostena"**. Turismo aktiboko enpresen kasuan, **"Alta-egoeran dauden langileen batez besteko plantillaren txostena"**, 2019koa.
- Erabilera turistikoko etxebizitzaren eta logelen titularren kasuan, pertsona juridiko izanez gero, Gizarte Segurantzaren **«Izena emateko eta CCC Esleipenerako dokumentuen kopia, enpresariarentzat»**.

13.- Nire enpresak beste enpresa edo pertsona batzuk titular dituen ostatu-enpresak kudeatzen ditu. Laguntzaren onuradun izan al naiteke?

Zure enpresak (A enpresak) turismo-ostatuko enpresari (B enpresa) zer jarduera garatzen dizkion zehaztu beharko da.

Zerbitzu horiek garbiketari, mantentze-lanei, informatika-zerbitzuei edo turismo-arlokoa ez den beste edozein zerbitzuri buruzkoak badira, jarduera horiek ostatu-jarduera turistikoen osagarritzat hartu behar dira, eta jarduera horiek garatzen dituzten enpresek ezin dute laguntzarik jaso, Agindu arautzailearen 3.1 artikuluari jarraiki.

A enpresak garatzen dituen zerbitzuak turismo-zerbitzuak badira, Turismoaren uztailaren 28ko 13/2016 Legearen 2.2.e) artikulua arabera, enpresa horrek jarduera hasteko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar izan du, jardueraren arabera dagokion figura gisa. Inskripzio hori Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistrora igorri da erantzukizunpeko adierazpena osatu den unean, eta

enpresa horiek inskribatuta dauden turismo-jardueraren tipologian eskatu beharko dute laguntza.

14.- Bitartekaritzako turismo-enpresa bateko frankiziaduna naiz, eta, bere garaian, bidaia-agentzia gisa jarduera hasteko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu nuen. Ni naiz (frankiziaduna) establezimendu berriaren jardueraren titularra. Laguntzak jaso al ditzaket?

Bai. Bitartekaritzako turismo-enpresa gisa jarduera hasteko erantzukizunpeko adierazpena osorik aurkeztu zuenean, enpresa hori Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan sartu zen. Enpresa horrek laguntzak eska ditzake, Agindu Arautzailearen 3.3 artikuluko c) idatz-zatian jasotako enpresa gisa.

14.a.- Eta frankiziaduna izan ordez – eta sortutako enpresaren titularra– enpresa frankiziatzailearen sukurtsala naizela adierazi badut?

Kasu horretan, establezimenduaren titular gisa agertzen den bitartekaritzako turismo-enpresak eskatu ahal izango du laguntza, betiere Agindu Arautzailean eskatutako baldintzak betetzen baditu.

15.- Establezimenduaren izena adierazteko betebeharra.

Agindu arautzailearen 5.3.1.a) artikulua ezartzen duenez, laguntza-eskaeraren xede den establezimenduaren kokapena eta izena berriaz zehaztu behar dira. Horregatik, eta kontuan hartuta ere turismo-enpresen tipologia batzuetan arauak ez duela eskatzen datu hori nahitaez adieraztea, Agindu honen babesean egindako laguntza-eskaerek eskaeraren xede den establezimenduaren izena jaso beharko dute.

16.- Pertsona juridiko bat eratu dut, erabilera turistikoko hainbat etxebizitzaren eta logela partikularren titularra dena eta besteren konturako langileen plantilla duena. Enpresa titularrak erabilera turistikoko etxebizitza eta logela ez den bulego batetik garatzen du jarduera. Laguntzak eskura ditzaket? Etxebizitzen zer erregistro-zenbaki adierazi behar dut eskabidean?

Laguntzak jaso ahal izateko, beharrezkoa da lantokia (jarduera garatzen den bulegoa) eta turismo-ostatua (k) EAEn kokatuta egotea eta Agindu Arautzailean jasotako gainerako baldintzak betetzea. Erabilera turistikoko hainbat etxebizitza edo logela partikularren titularra bada, nahikoa da haietako baten erregistro-zenbakia adieraztea.

17.- Zer adierazten du erakunde onuradunen betebeharrei buruzko 10. artikuluko a) eta b) idatz-zatietan jartzen duenak?

Agindu Arautzaileak honako hau ezartzen du aipatutako ataletan:

a) Jardueran alta emanda egotea, eta 3.3 artikuluan adierazitako kolektibo onuradunetako baten barruan egotea, gutxienez lau hilabetez, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera.

b) Finantzatutako jardueran gutxienez lau hilabetez aritzea jarraian, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

a) idatz-zatiak ondorengo betebeharra ezartzen die erakunde onuradunei; finantzatutako jarduera, laguntzaren xede den jarduera mantendu beharra, eskaera egiteko epea amaitzen denetik gutxienez lau hilabete igaro arte.

b) idatz-zatiak argitu egiten du lau hilabete horiek jarraian izan behar direla eskaerak onartzeko epearen amaiera gisa markatutako datatik (2021eko otsailaren 24); hau da, 2021eko ekainaren 25era.

Turismo-enpresen jarduera aldi baterako eteteak (haien dekretu arautzaileek aurreikusten dutenez) ez dakarrenez EETJEko inskripzioa ezereztea, ez da ulertuko aldi baterako etete horren berri eman duten establezimenduek jarduera eten dutenik, Agindu Arautzailearen baldintzak betetzeari dagokionez, aldi baterako etete horrek irauten duen bitartean.

18.- Dokumentazio osagarria aurkeztea

Eskatzaileak dokumentazio osagarria aurkez dezake prozeduraren edozein unetan aurkeztu duen nahitaezko dokumentazioaz gain, horrela eskatu zaiolako edo bere borondatez; adibidez, aitortutako edozein datu argitzen duen memoria bat. Kontuan hartu behar da, dena den, eskabidea aurkeztu ondoren dokumentazioa aurkezten bada, eskaera osorik aurkeztutako data izango dela azken dokumentua aurkeztu den data.

19.- nekazaritza-turismoko EJSN eta ekonomia-jardueren gaineko zerga. Nekazaritza-turismoko establezimenduek ez dute EJZn alta emateko betebeharririk, eta EJSNko sailkapena ez da turismo-jarduera bat, foru-arau fiskalek hala behartzen baitute. Zein kode adierazi behar ditut eskabidean?

Otsailaren 19an, aldaketa bat egin da eskaera-inprimakian, nekazaritza-turismoko establezimenduek bete ahal izan dezaten. Horrela, behin ostatu-enpresaren tipologia hautatuta, EJSN 5590 Beste ostatu eta landetxeak aukera markatu beharko dute, baita REATEn duten erregistro-zenbakia ere.

Adierazitako aukerak markatu ondoren, sistemak formularioa betetzen jarraitzeko aukera ematen du.

Kontuan izan establezimendu horiek EJZn alta ematen ez dutenez gero, jarduera 2021eko urtarrilaren 15a baino lehen hasi dela egiaztatzeko, establezimendua REATEn egun hori baino lehen inskribatu dela egiaztatuko dela.